

## UDALBATZARRAK 2011ko APIRILAREN 26an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2011ko apirilaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Roteta Elola Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Roteta Elola

ZINEGOTZIAK :

Aitor Eizmendi Garro  
Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Koldobika Jauregi Zinkunegi  
Juan Ignacio Umerez Urrezola  
Jose Ramon Hernandez Cristóbal

Bere ezin etorria azaltzen du: Ainara Zurutuza Ilundain

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

**1.Aurreko bilkuretako akten onespena.**

**2011ko martxoaren 29an egindako ohiko bilkuraren akta.**

**2.Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

**3.Fakturak eta ordainketak.**

**4.Tolosaldeko landa garapen elkarte "Tolomendi"-ri 2011 ekitaldiari dagokion ekarpena burutzea, hala badagokio.**

**5.I.A.A. Jaunak eginiko eskaera, hau da, SS-5553-V matrikula duen ibilgailuari,"vehiculo historico" hobaria aplikatzeko eskaera aztertu, hala bada.**

**6.Ur Mara museoan negutegi bat ipintzeko eta harrera akondizionatzeko baimena eskaera, K.J.jauna.**

**7.2011ko maiatzaren 22an egingo den Udal eta Batzar Nagusietako hauteskundeetako mahaikideak izendatzeko zozketa.**

**8.2011 ekitaldirako udal aurrekontuaren espedientearen haserako onespena, hala bada.**

**9.Beste batzuk.**

**10.Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

**LEHENENGO PUNTUA**  
**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2011ko martxoaren 29ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

**BIGARREN PUNTUA**  
**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

08/2011 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 4koa, Faktura txikien zerrenda onartu eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

09/2011 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 26koa, J.I.G. jaunak eskatutako segregazio baimena onestea, ebazten duena.

09 bis/2011 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 26koa, J.I.G. jaunak eskatutako segregazio baimena onestea, ebazten duena.

**HIRUGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

|                               |           |
|-------------------------------|-----------|
| - IBERDROLA                   | 128,69€   |
| - IBERDROLA                   | 429,59€   |
| - BDATEK INGENIERIA AMBIENTAL | 238,36€   |
| - BDATEK INGENIERIA AMBIENTAL | 236,00€   |
| - VODAFONE                    | 218,81€   |
| - SOLRED                      | 131,30€   |
| -IZFE                         | 1.697,80€ |
| -ARGITU ASESORES              | 148,74€   |
| -EINBER                       | 295,00€   |
| -CONSULTORIA TECNOLOGICA      | 297,36€   |
| -IZADI LABORATEGIA            | 188,80€   |
| -VASCONGADA DE ALCOHOLES      | 222,85€   |
| -ENEKO ITURBE                 | 2.286,60€ |
| -ENEKO ITURBE                 | 782,80€   |

-ELECTRICIDAD ZIZURKIL S.L.

612,72€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **7.915,42** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespina ematea.

**LAUGARREN PUNTUA**

**TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEA “TOLOMENDI”-ri 2011 EKITALDIARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak- “Tolomendi-k “aurkeztutako idatzia non 2011ko apirilaren 14ean ospatutako Batzar Orokorrean 2011 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.

Ikusirik 2011 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalari 3.039,99 euro ordaintzea dagokiola.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkarte-Tolmendirari 3.039,99 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2011 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.

**BOSTGARREN PUNTUA**

**I.A.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERA, HAU DA, SS-5553-V MATRIKULA DUEN IBILGAILUARI ,“VEHICULO HISTORICO “ HOBARIA APLIKATZEKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik I.A.A. eginiko eskaera, non SS-5553-V matrikula duen ibilgailuari, “vehiculo historico” hobaria aplikatzeko eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Ordenantza fiskaletan, Alkizako Udalak ez dituela horrelako hobaririk onestuta.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.A.A. jaunak eginiko eskaera ez onartzea, Alkizako Ordenantza fiskaletan ez dagoelako onartuta aipaturiko hobaria.

BIGARRENA: I.A.A. jaunari erabaki honen berri ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**UR MARA MUSEOAN NEGUTEGI BAT IPINTZEKO ETA HARRERA AKONDIZIONATZEKO BAIMENA ESKAERA, K.J. JAUNA**

Batzarkideak gaia mahai gainean uzteko erabakia hartzen dute, hobeto aztertu arte.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

**2011KO MAIATZAREN 22AN EGINGO DEN UDAL ETA BATZAR NAGUSIETAKO HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETA**

Ikusirik datorren maiatzaren 22an Udal eta Batzar Nagusietako Hauteskundeak ospatuko direla eta mahaikideen izendatze zozketa burutu behar dela.

Izendatze zozketari hasera ematen dio Alkate jaunak, ondoren aipatzen diren mahaikideak izendatzen direlarik:

LEHENDAKARIA: ION GORRITI INSAUSTI

1. ORDEZKOA: ITZIAR IBARBIA URRUTIA
2. ORDEZKOA: M<sup>a</sup> ARANZAZU DIAZ DE ILARRAZA SANCHEZ

1. BOKALA: JORGE DEVIS JAEN

- 1.ORDEZKOA: BLANCA SUBIJANA USABIAGA
- 2.ORDEZKOA: ENKO SORARRAIN URRUZOLA

2.BOKALA: GORKA GOIKOETXEA CALVO

- 1.ORDEZKOA: JOSE RAMON OTAMENDI ROTETA
- 2.ORDEZKOA: M<sup>a</sup> ISABEL PITA PENA

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

**2011 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUAREN ESPEDIENTEAREN HASERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2011 urterako Udal Aurrekontuaren proiektua non 2011 urterako ekitaldi ekonomikoan Udalak izango dituen diru sarreren eta gastuen partidak jasotzen diren.

Ikusirik aurrekontuaren dokumentuari eransten zaion dokumentazioa, hau da memoria, inbertsioen eranskina, pertsonalaren eranskina, aurrekontua betearazteko araua eta bestelakoak.

Ikusirik 2011ko apirilaren 20ean Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak eginiko txostenean dioena.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

## ERABAKITZEN DU

LEHENA.- 2011 urterako Alkizako Udaleko Aurrekontuaren espedientea osatzen duen dokumentazioari, hau da, memoria, inbertsioen eranskina, lanpostu zerrenda, Plantila Organikoa, aurrekontua betearazteko arau eta bere eranskinei hasierako onespena ematea.

BIGARRENA.- Aurrekontuaren espedientearen hasierako onspenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta hamabost egunetako epean dokumentua jendaurrean ipini edonork aztertu eta egoki dituen alegazioak zein iradokizunak burutu ditzan. Aipaturiko epean alegaziorik zein iradokizunik aurkeztuko ez balitz behin betirako onartuta geratuko da.

## ERANSKINA

2011 ekitaldirako Udal Aurrekontu Orokorraren laburpena kapituloka ondorengoa da:

### **SARREREN EGOERA**

|                                   |                     |
|-----------------------------------|---------------------|
| 1.- Zuzeneko zergak:              | 50.100,00           |
| 2.- Zeharkako zergak:             | 5.000,00            |
| 3.- Tasak eta bestelako sarrerak: | 37.814,00           |
| 4.- Transferentzia arruntak:      | 272.300,00          |
| 5.- Ondarezko sarrerak:           | 4.210,00            |
| 6.- Inbertsio errealak inoreng.:  | 0,00                |
| 7.- Kapital transferentziak:      | 91.560,42           |
| 8.- Finantza aktiboak             | -17.608,97          |
| 9.- Finantza pasiboak             | 0,00                |
| <b>GUZTIRA:</b>                   | <b>443.375,45 €</b> |

### **GASTUEN EGOERA**

|                                 |            |
|---------------------------------|------------|
| 1.- Pertsonal gastuak:          | 137.755,72 |
| 2.- Ondasun arrunten erosketak: | 100.800,00 |
| 3.- Finantza Gastuak:           | 1.500,00   |
| 4.-Transferentzia arruntak:     | 78.043,55  |
| 6.- Inbertsio errealak:         | 105.276,18 |
| 7.-Kapital Trasferentziak       | 0,00       |
| 8.- Finantza aktiboak           | 0,00       |
| 9.- Finantza pasiboak           | 20.000,00  |

**GUZTIRA:**

**443.375,45**

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

***Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.***

**9.1.M.C.E.G. ANDREAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik M.C.E.G. andreak eginiko eskaera, non Antzieta baserrian abereentzako izandako ikuilu-pabiloian karabanak gordetzeko jarduera martxan jarri nahi duela.

Ikusirik M.C.E.G. andreak eginiko eskaerari erantzuna emanez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentutik idatzi bat heldu dela non azaltzen duen : *NEKAZAL ERAIKINEN ERABILPENAREN INGURUKO FORU ALDUNDIAREN IRIZPIDEAK*

*“...Foru Aldundiko Landa Garapen Departamentutik egoki ikusten dugu eraikin (ikuilu) hauen berrerabilpena, beti ere herri txikietako ekonomiaren garapenerako egokia bada eta gainera baldintza hauek betetzen baditu:*

*1.-Erabilpen berriak ez du azpiegitura edo urbanizazio beharra sortu behar. Dagoen baldintzetara egokitu beharko du.*

*2.-Ez du paisaiaren aldetik eragin kaltegarrikerik eduki behar.*

*3.-Intentsitate apaleko aktibitateak izan beharko lukete: biltegi, gordailu, artisautza ekoizpenak edo instalazio gutxi eskatzen dutenak.*

*Hainbat urteetan egindako inbertsioei irtenbide egoki bat emateko aukera dela uste dugu eta, gainera, herri txikien bizitzarako onura ekar dezakena.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA:** M.C.E.G. andreari jakinaraztea, Antzieta baserrian abereentzako izandako ikuilu-pabiloian karabanak gordetzeko jarduera martxan jarri dezakeela, horretarako beharrezkoa den proiektua Udaletxe honetara aurkeztu beharko duela, dagokion izapidetzak egin ondoren jarduera baimena emateko.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri M.C.E.G. andreari ematea.

**9.2.SALETXE BASERRIA ERABERRITZEAN LIZENTZIATIK KANPO EGINIKO**

## **OBREN LEGEZTATZE ESKAERAREN AZTERKETA, A.G.**

Ikusirik A.G. jaunari, 2011 urteko otsailean igorri zitzaion txosten teknikoan, lizentziatik kanpo egindako obrak gelditzea eskatzen zitzaiola eta aipaturiko lizentziatik kanpoko obrak, data horretatik aurrera gelditurik daudela. Bertan obrak legeztatze beharrezkoa zen dokumentazioa Udaletxe honetan aurkezteko eskatzen zitzaiolarik.

Ikusirik A.G. jaunak Saletxe baserria eraberritzeko lanetan, lizentziatik kanpo egindako obrak legeztatze dokumentazioa Udaletxe honetan aurkeztu zuela.

Ikusirik Udaletxe honek ez duela argi lizentziatik kanpo egindako obrak legeztagarriak diren edo ez erabaki bat hartzeko, batzarkideak proposatzen dutelarik, beste arkitekto bati eskatzea, espedientea aztertu dezan eta dagokion txosten teknikoa egin dezan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho bate, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: A.G. jaunari jakinarazi, Alkizako Udalak, Saletxe baserrian lizentziatik kanpo egin dituen obrak gelditzeko erabakia berresten duela.

BIGARRENA: A.G. jaunari jakinarazi, Saletxe baserrian lizentziatik kanpo egin dituen obrak legeztagarriak diren edo ez erabakitzeko beste txosten tekniko bat eskatu behar duela, beraz A.G. jaunak eginiko eskaera mahai gainean uzteko erabakia hartzen du Alkizako Udalak, aipaturiko txostena izan arte.

## **9.3.KUKUTEGI ETXEAREN ONDOAN DAGOEN TXABOLAKO TEILATUA KONPONDU ETA ATE BAT JARTZEKO BAIMENA ESKAERA. A.M.E.**

Ikusirik A.M.E. andreak eginiko eskaera, non Kukutegi etxearen ondoan dagoen txabolako teilatua konpondu eta ate bat jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik A.M.E. andreak aurkeztu duela egin nahi dituen obrak egiteko aurrekontu bat.

Gaia azterturik, bertaratuak, Jon Roteta Elola Alkatearen abstentzioarekin 30/1992 Legeak 28. artikulua xedatutako kasu batean aurkitzen delako, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: A.M.E. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Kukutegi etxearen ondoan dagoen txabolako teilatua konpondu eta ate bat jartzeko obra baimena ematea, ondorengo baldintzak betetzen baditu:

- Jarriko den teia "Teja roja arabica o equivalente" izango da.
- Teilalatuak gaur egun dituen neurriak izango ditu.
- Ateari buruz, marroi kolorekoa izan beharko du.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

#### **9.4. J.I.G. ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEAN HARTUTAKO ERABAKIEN ONESPENA**

Ikusirik, Alkizako Udalak J.I.G. jaunaren terrenoetan, herriko hondakin urak arazteko planta bat egin duela. Terreno hauek J.I.G. jaunak Alkizako Udalari lagatzeko prest dagoela, horretarako beharrezkoa den segregazioa egin delarik. Aipaturiko terrenoa Txapiola, Aldatzako-Sagastia eta bideburuko-Sagastizarra da, guztira 2976 metro ditu, 2176 metro Alkizako Udalari lagatzeko prest dagoelarik.

Ikusirik J.I.G. jaunak, Alkizako Udalak egin duen Arau Subsidiarioetako aldaketa puntuaren ondoren, sortu den U.E.U. 5.1. unitate berrian, Nekazal turismorako izango den bi bizitzako eraikin bat egin nahi duela. Ondorioz, Alkizako Udalari aprobetxamendu tipoa dela eta, hau da, % 15 laga beharko dio, Txapiola, Aldatzako-Sagastia eta bideburuko-Sagastizarra terrenoaren 2176 metroen lagapenarekin kitatuta gelditzeko proposamena luzatu dio Alkizako Udalak, J.I.G. jaunari, azken honek proposamena onartzen duelarik.

Ikusirik Mikelena-Peru urbanizazioa gauzatu zuenean Alkizako Udalak, espaloi bat egin zuela J.I.G. jaunaren lurretan, guztira 85 metro dituen (dagokion segregazioa egin da). Udalak proposatzen diolarik J.I.G. jaunari Udalari lagatzea, U.E.U. 5.1. unitatean egin nahi duen bi bizitzako eraikinean laga beharko dituen 65 metroen trukean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

#### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA.- J.I.G. jaunak, Alkizako Udalari eginiko lagapena onestea, hau da, Txapiola, Aldatzako-Sagastia eta Bideburuko-Sagastizarra terrenoaren 2176 metroen lagapena onestea, bertan Alkizako Udalak, hondakin urak arazteko planta bat egin duelako (Erabaki honi erantzen zaio, terrenoaren segregazio ebazpena).

BIGARRENA.-J.I.G. jaunak, Alkizako Udalari eginiko lagapena onestea, hau da, Mikelena-Peru urbanizazioa egiterakoan eginiko espaloiaren lagapena onestea, guztira 85 metro direlarik (Erabaki honi erantzen zio, terrenoaren segregazio ebazpena).

HIRUGARRENA.-Alkizako Udalak J.I.G. jaunari salbuestea U.E.U. 5.1. unitatean eraiki nahi duen bi bizitzako eraikinaren ondorioz, Udaletxe honi laga beharko zion aprobetxamenduaren % 15a, 20.600 euro balioa duena.

LAUGARRENA.- Alkizako Udalak J.I.G. jaunari salbuestea U.E.U. 5.1. unitatean eraiki nahi duen bi bizitzako eraikinaren ondorioz, Udaletxe honi laga beharko zion 65 metroak.



BOSTGARRENA.- Erabaki honen berri J.I.G. jaunari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Alkate-Lehendakari jauna ahalmenu erabaki hauek eskritura publikoan jasotzeko, dagozkion izapideak egiteko.

### **9.5.EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN ESKU JARTZEA ALKIZAKO 755 ZENBAKIA DUEN FINKA, GAUR EGUN HERRIKO PLAZAN KOKATURIKO UMEEN JOLASTOKI AZPIAN DAGOEN ORUBEA**

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa sailak Alkizan 2 unitate+ 3unitate izango dituen LH eraikin bat egin ahal izateko, eta dagokion proiektua prestatzen hasteko, euren eskura jarri behar dela gaur egun herriko plazan kokatutako umeen jolastoki azpian dagoen orubea, hau da, Tolosako Jabetza erregistroan idatziriko Alkizako 755 zenbakia duen finka .

Aipaturiko finkak Tolosako Jabetza Erregistroan dauden datuen arabera ondorengo deskribapena du:

“URBANA: Parcela de terreno en jurisdicción de Alkiza, de novecientos ochenta y seis metros y sesenta y seis decímetros cuadrados. Linda: Norte, Plaza; Sur y Este, Catalandegui y Oeste, con huerta de la casa Cural, aneja a la bodega.

Así resulta de la inscripción 1 de la finca número 755, al folio 132, del tomo 1494 del Archivo, libro 22 de Alquiza.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren esku jartzea Alkizako 755 zenbakia duen finka, hau da, gaur egun, herriko plazan kokatutako umeen jolastoki azpian dagoen orubea, Alkizan Haur Hezkuntzako 2 unitate+ 3 unitate izango dituen LH eraikin bat egin ahal izateko, beharrezkoak diren proiektuak egiten hasteko.

BIGARRENGOA.-Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Gipuzkoako lurralde ordezkariari ematea.

### **9.6.ALKIZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO U.E.U.5.1. UNITATEAN BI BIZITZAKO ERAIKIN BAT EGITEKO BAIMENA ESKAERA. A.M.A.**

Ikusirik A.M.A. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako U.E.U. 5.1. unitatean Nekazal turismo erabilera izango duen bi bizitzako eraikin bat egin nahi duela, horretarako Labayen arkitektoek eginiko oinarritzako proiektua aurkezten du, zeina, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak, Gipuzkoako

ordezkaritzak, 2011ko martxoaren 3an bisatu duena.

Ikusirik 2011ko apirilaren 20an Udal Aholkulari teknikoak igorritako txostena,

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa,

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.M.A. andreak eskaturiko Alkizako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako U.E.U. 5.1. unitatean Nekazal turismo erabilera izango duen bi bizitzako eraikin bat egiteko obra baimena ematea. Gainera ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

#### **BALDINTZA PARTIKULARRAK**

- Lizentzia, obra hasi aurretik aurkeztu beharko duen exekuzio proiektuari, Udalak eman beharko dion oniritziari, baldintzaturik egongo da.
- Lizentzi honekin batera jarduera baimena eskatu beharko du Udal honetan, jarduera proiektua aurkeztuz, dagokion izapideak egin ondoren baimena izan dezan edo azken hau beharko ez balitz, dagokion dokumentazioa Udal honetan aurkeztu beharko du.

#### **BALDINTZA OROKORRAK**

##### ***Obrak hasi aurrekoak.***

- Eraikitze lanetan beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartu beharko dira bertan ari diren langileei eta hirugarren pertsonen kalterik ez eragiteko.
- Obren egikaritzaren ondorioz itxidurarik edo bide publikoan oztoporik ipiniko balitz modu egokian eta garbian adierazi beharko dira eta beharrezkoa izango da aurretik udalari jakinaraztea.
- Hondakinen garraioa burutzerakoan segurtasun neurriak hartu beharko dira soinuak, hautsa eta materialen galera ekidinez.
- Baimen honen eskuratzeak ez du baztertzen egin beharreko obrak eragin dezakeen erakunde baimen edo lizentzien eskuratzea, beharrezkoak diren ekintzak ezin dituelarik zilegi egin edo salbuetsi.
- Udal Teknikariak edozein unean obraren garapena aztertu ahal izango du, exekututako obra onartutako eskaera edo proiektuari, obra baimenari eta indarrean dagoen araudiari egokitzen den ikusteko. Emandako baimenaren kopia bat eta proiektu teknikoa egon beharko dute obran une oro.
- Obrak amaitzeko epea 12 hilabetekoa izango da obra baimena eman zen egunetik kontatzen hasita.

- Udalak emandako obra baimena hurrengo kasuetan iraungitzat emango da:
  - a) Baimena notifikatzen denetik kontaktzen hasita sei hilabeteko epean obrak hasiko ez balira.
  - b) Obrak sei hilabetetan geldituko balira.
  - c) Obrak aurreikusitako epean amaituko ez balira.

### **Obrak amaitzerakoan**

- Obra baimenaren titularrak obra amaitzerakoan obra horien inspeksioa eskatu beharko du, aipaturiko eskaerari hurrengo dokumentazioa erantsiko diolarik:
  - a) Obraren Zuzendaritzaren azken ziurtagiria, Arkitektu Zuzendaritzagatik izenpetua eta Euskal Herriko Arkitektuen Elkarte Ofizialagatik bisatua, obraren exekuzioa proiektuaren arabera izan dela eta jarri zitzaizkion baldintza guztiak bete direla egiaztatuz eta obraren muntaia zenbatekoa izan den zehaztuz.
  - b) Aldaketarik egon baldin bada, obra amaituta geratu den egoerari buruzko planoak.
  - c) Obra berriko eskritura.
- Eraikinak okupatu eta erabiltzen hasi aurretik lehenengo erabilerako baimena eskatu beharko zaio udalari eta dagokion dokumentazioa aurkeztu.

### **Bestelako xedapen orokorrak**

- Obra baimena ematen da hirugarrenen eskubideen kalterik gabe eta jabetza eskubidearen kalterik gabe. Ezin izango da baimen hau erabili jardueraren egikaritzan onuradunaren erantzukizun zibila edo penala gertatuz gero, erantzukizunetik salbuetsi edo erantzukizuna murrizteko.
- Obraren egikaritzan sortutako kalteez baimen honen titularrak erantzungo du, horretarako dagokion erantzukizun zibilaren seguro poliza kontratatua izan beharko duelarik.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

## **9.7. DANENA-AMAROZ EGITURARAKO ERRENDIMENDUKO KIMU LEHIAKETARAKO PLAZA ESKATZEKO LAGUNTZA ESKEINTZEA.**

Ikusirik Danena-Amaroz Kirol Elkarteak eginiko eskaera, non Alkizako Udalari laguntza eskaera egiten dion Tolosaldeko hurrei Gipuzkoako beste edozein eskualdetako hurrek duten futboleko jokatzeko aukera berberak emateko aurkeztutako proiektuari. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako Futbol Federazioari eta Real Sociedad SAC eri eskatzen die egitura honi 2011-2012 denboraldian

errendimenduko kimu lehiaketarako plaza bat eskain diezaiotela egitura honi.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkizako Udalak laguntza eskaintzen dio Danena Kirol Elkarteak eta Amaro Kirol Elkarteak Tolosaldeko hurrei Gipuzkoako beste edozein eskualdetako hurrek duten futboleko jokatzeko aukera berberak emateko aurkeztutako proiektuari. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako Futbol Federazioari eta Real Sociedad SAC er eskatzen die egitura honi 2011-2012 denboraldian errendimenduko kimu lehiaketarako plaza bat eskain diezaiotela egitura honi.

#### **9.8. "ACTUACIONES DE CONSERVACION Y MEJORA DE LOS HABITATS Y ESPECIES DE INTERES COMUNITARIO EN LOS TERRENOS DE ALKIZA INCLUIDOS EN EL LIC ERNIO-GATZUME" PROIEKTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik Ernio-Gazumeko ZEC-aren Gestio Planaren eremuan Alkizako ingurune naturalaren kontserbaziorako idatziriko "ACTUACIONES DE CONSERVACION Y MEJORA DE LOS HABITATS Y ESPECIES DE INTERES COMUNITARIO EN LOS TERRENOS DE ALKIZA INCLUIDOS EN EL LIC ERNIO-GATZUME" proiektua.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- "ACTUACIONES DE CONSERVACION Y MEJORA DE LOS HABITATS Y ESPECIES DE INTERES COMUNITARIO EN LOS TERRENOS DE ALKIZA INCLUIDOS EN EL LIC ERNIO-GATZUME" proiektuaren jarduna eta finantzatzeko konpromisoa (2012 aurrekontuetan) hartzea toki erakundearen ekarpena egiteko.

#### **9.9. SALETXE BASERRIA ERABERRITZEAN EGINIKO OBRAK DIRELA ETA AURKEZTURIKO KEXAREN AZTERKETA, I.S, L.S., I.S. Eta P.S.**

Ikusirik I.S, L.S., I.S. Eta P.S. Jaun/andreak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

*"I.,I.,L eta P.S. anai-arrebak, Alkizako Agina baserriko bizilagunak garenez, ondorengoa*

**AZALTZEN DUGU:**

*Irakurri dituztela Alkizako arau subsidiarioak eta kasu guztietan jartzen duela, mugetako distantzia 10 metro izan behar duela.*

*Hau ikusirik, ondorengo*

**ESKATZEN DUGU:**

*Saletxe baserriari erantsita dagoen beheko lokala mugetatik margena utzi behar duela.”*

*Ikusirik I.S, L.S., I.S. Eta P.S. Jaun/andreak aurkezturiko kexa non ondorengo dioen:*

**“AL SEÑOR ALCALDE DE ALKIZA**

*Los abajo firmantes nos ponemos en contacto con Ud. Nuevamente, ante las graves irregularidades que estamos observando en las obras de renovación del caserío denominado “Saletxe”.*

*Como resulta del informe del Sr. Arquitecto Díaz de Goyena, remitida a esta parte con fecha 11 de febrero de 2011, las obras actualmente en ejecución se apartan de la licencia concedida en su momento.*

*Siendo ello así, nos hallamos ante unas obras clandestinas, en las partes de las mismas no amparadas por la licencia, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 219 de la ley 2/2006 vasca del suelo.*

*Siendo ello así, con carácter inicial, le requerimos para que, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 220 de la ley 2/2006 acuerde la paralización inmediata de tales obras, a fin de analizar la posibilidad de legalización de las mismas.*

*En segundo lugar, procede que se requería a la propiedad de la obra a que, en el plazo de un mes presente, en su caso una solicitud de legalización, a fin de que ese Ayuntamiento se pronuncie al respecto.*

*Lo que no es admisible, y supone incumplir flagrantemente la legislación vigente es que el Ayuntamiento que Ud. Preside, conociendo la existencia de obras clandestinas, no actúe como marca la ley al respecto, y permita su libre continuación, algo inadmisibile y que no vamos a tolerar.*

*En tercer lugar, le adelantamos que, caso de que se solicite por el propietario la legalización, la misma debe ser rechazada sin lugar a dudas, en tanto que, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 223 de la Ley 2/2006, dicha legalización sería contraria a la ordenación urbanística aplicable.*

*En concreto, un simple análisis de las NNSS de Alkiza evidencia que lo que se esta ejecutando, es en todo caso contrario a dichas normas.*

*Para justificar lo anterior, debe recordarse que nos hallamos ante una licencia para rehabilitación de un caserío, como señala el informe del Sr. Arquitecto.*

*Pues bien, siendo ello así, el artículo 2.3. de las NNSS señala que los caseríos existentes se consolidan en la parte de edificación principal, quedando las chabolas o adosados, fuera de ordenación.*

*Resulta pues que, como sucede para los caseríos abandonados, se consolida el edificio principal, con la volumetría y morfología que tuvieron inicialmente, sin posibilidad de ampliar o alterar la misma.*

*En este caso, el caserío en cuestión tenía una chabola adosada, que si bien ha desaparecido como tal en la obra nueva, de hecho se ha visto sustituida por ese nuevo espacio creado con esa losa no prevista en el proyecto.*

*Ello contraviene la disposición aplicable de las NNS, pues de hecho se altera la morfología del caserío principal, y se pretende obviar la prohibición de construir esa chabola o cobertizo en sustitución de la anterior.*

*En base a todo ello los abajo firmantes le requerimos formalmente que:*

*a)Acuerde la inmediata paralización de las obras, requiriendo al propietario a que presente la correspondiente solicitud de legalización.*

*b)Caso de ser la misma presentada, la rechace, por los motivos señalados.*

*c)Consecuentemente, acuerde la demolición de la parte de la obra clandestina, en los términos que contempla el informe del Sr. Arquitecto.*

*d)Nos comunique como interesados cualquier escrito presentado en relación al inmueble en cuestión, dándonos trámite de audacia.*

*Por último le comunicamos que, ante la pasividad demostrada por ese Ayuntamiento, hemos decidido asesorarnos profesionalmente en este asunto, para lo cual hemos contratado los servicios del Sr. Joanes Labayen, Socio del Despacho Cuatrecasas de San Sebastián, que tiene instrucciones precisas de ejercer cuantas acciones proceden en defensa de nuestros derechos, incluso las judiciales.*

*Sin otro particular, y esperando noticias, suyas, reciba un cordial saludo.*

*I.S.A.  
L.S.A.  
P.S.A.  
I.S.A.”*

Ikusirik, Alkate-lehendakari jaunak bi alderdiekin hitzegin duela eta bitartekari lanak egin dituela, gaiak ahal duen irtenbide paketsua izan dezan, ez delarik helburua lortu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.S., L.S., I.S. eta P.S. anai-arrebak aurkezturiko eskaerari buruz, jakinaraztea, Saletxe baserrian egin diren lizentziatik kanpoko obrak gelditurik daudela, eta hauei buruz erabaki bat hartzeko, Udalbatzak gaia mahai gainean utzi duela, beste Arkitektu batek txosten tekniko bat egin arte.

BIGARRENA: I.S., L.S., I.S. eta P.S. anai-arrebak aurkezturiko kexari buruz, jakinarazi Saletxe baserrian egin diren lizentziatik kanpoko obrak otsailaz geroztik geldirik daudela.

HIRUGARRENA: S. anai-arrebei jakinaraztea, A.G. jaunak aurkeztu duela, Saletxe baserrian egin dituen lizentziatik kanpoko obren legeztatze eskaera.

LAUGARRENA: S. anai-arrebei jakinaraztea, Udal honek erabaki duela, A.G. jaunak Saletxe baserrian egin dituen lizentziatik kanpoko obrak legeztagarriak diren ala ez erabakitzeko, beste arkitektu bati, espediente guztia aztertu ondoren Txosten tekniko bat igorri dezan eskatzea, bere garaian dagokion erabakia hartzeko.

BOSTGARRENA: S. anai-arrebei jakinaraztea, goian aipaturiko txostenak izatean, Udalbatzak hartuko duen erabakiaren berri emango diela.

SEIGARRENA: S. anai-arrebei guzti honen berri ematea.

ZAZPIGARRENA: A.G. jaunari erabaki honen berri ematea.

#### **HAMARGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 23.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*